




:—: VI Urtea 1924'ko Dagoniñ 68 Zenbakia :—:

IRUÑA'KO OBISPOAREN AGIRIA

Jazkera berri nabarmen gaiztagarri Elizak gaitzetsiaz
jantzitako emakume (emazteki) ta nexkatoak
elizetan sartzen uztea debekatuz.



ERE lenengo Artzai-eskutitz (Pastoralean) ezañirik uz-
ten nuan siñismen (fede) katoliko osoak, siñistekoak
eta egitekoak, siñisgai eta oitura onak afapatzen di-
tualako egia eta kristau askok egiten dutena gaitzes-
ten nuan; Ebanjelioak erakutsiari azkar buruz itsasteko
(itxekitzeko) alegiña egiñez dabiñtzalako, beren biotzak
eta zentzuak kristauen egitekoak oinperatu ta Jesukris-
tok ainbat aldiz ta ain gogor gaitzetsi zuan mundu us-
tel ta usteltzalearen esanak ezeren ardurarik gabe ja-
ñaitzen (segitzen) dituzten bitartean. Beste asko gau-
zaren artean esaten nuen: Ala gertatzen da gaurko ja-
ntzibefi edo moda galgafiakin. Auen bidez emakume—
kristau ontzat beren buruak dauzkatenak—batzuetan
guzien aurrean agertzen dituzte beren goi-beko nabar-
menkeriak.

Eta eransten nion: Oitura onen kaltezkola saikeri ortaz garbi itzegitea
beaferzkoa da ta Jainkoak onez ala egingo dut ongi irudi zaitenean, baño ba-

tez ere zuurtzerizko gogo onez beterikako azkartasunaz lana egiñen dut. Eta ezin erditxi ba-nu Nere eliztar maiteen zelai (plaza), etxe, ta bizitzetara nere lan osasungafia eramatea, zenbaitei egitez erakutsiko diet beintzat, elizako santutasuna ta zenbait jantziera befi afoen nabarmenkeria ezin batu dirala.

Neronek uste dutena ta Nere eginkizunaz daukedan iruditua naikoa nituzke lanbide ontan bear den zofoztasuna erakusteko; baño oraingoan gizaki agurgafi askoren ikustaldi ta eskutitz (karta) batzuek bildu zaizkit jantzi befi (moda) galgafi oien kaltezko erabaki ta sendagai premizkoaren eske. Eliz santura ta Jauna artzera ere beroiekin bai dijoaz (doazi).

Gaiztarazi nai ta gaizta-bidea (eskandaloa) gora dijoaz lotsarik gabe ta ezin eraman diteken eran.

Adinekotan batzuek neskatzak, bestea amak, or ikusten dira karika, ibiltoki ta elizetan, (teatroaz ezer esan gabe,) beren buruak estaltzeko ez baño beren nabarmenkeriak obeki nabari azteko egiñak irudi duten soñekoz jantzirik. Eta zenbait emakumeen orko nabarmenkeriak siñiste gabekoen arteko Bako-koiak ere lotsaturik utziko lituzteke. Eta ba-dute kopeta (bekokia) beren beso, lepo, bular-aldeak eta agirian dituztela Toki santuan, Ostegun Santuko agufaldi ta ikustaldietan eta Jaunaren afean eta Jauna artzeko Mai Santu berean ere agertzeko.

Jantzi befi nabarmenen legeari jaraituz (segituz) neskatzoen gaitz gabetasunari erorbide ifista-ifistagafia jartzera bear zan auferatu; jantzi befi lotsagabeaz eta pekatuaz, karika, zelai ta jelizetan! gona arin batzuek diruditenaz azpitik eta gañetik motz-motz jantzirik, zafagoen lasaitasun txorora besoetan, lepotan eta gañerakoetan aiek baño ere gordiñago daramatela.

Ni ere gertu nago, Nere beafak eskatzen didanez, Nere Eliz-bafuti maitean Jesukristo'ren Ordekoaren aginduak adirazteko ta eginbide mingafi ontan berak ebakitako bidez jotzeko. Esan degun guzi onen ondoren Aita Santuak bezalaxe gaitzesten ditut oraingo dantzak. Eta gaiztotzat ematen dut seme ta alabak Deabruaren eta griña eziñ aipatu direnen saldu-tokia dan ortara joaten uzten dien gurasoen oitura. Onetsi (bedeinkatzen, ditut, beren seme-alabak datza guzietatik ufuti zaintzen dituzten guraso kristau bakanak. Dantza lotu mota guzietakoaz ari naiz esaten. Jantzierako soñeko-befi nabarmen guziak gaizki daudela ta gaitzesten (condenatzen) ditudala esanik, esan bear dut emakumeak ez dutela iñolazko eskubiderik, gizakiai erorbidea ta pekatua eragiñez, *karikak, ibiltoki ta plaza* ta bařena ibiltzeko. Elizai, Ikastetxe katolikoai ta Nere eskupeko etxeai dagokienez onako au agintzen eta erabakitzen dut:

1.^a Eliza baita Jaungoikoaren etxea, Jesukristo Jaungoiko ta gizon guzien Zeruratzale ta Epaile (Juez) ta Ontasun azkengabea, Sakramentu Guzi agurgafian bizi dan tokia; emen alabatu, onetsi (bedeinkatu) ta inguratzen bai-dute Aingeru ta Santuak eta argatik kristaua bearturik dagoalako ardura (afeta) guzi elizan egoki ez danik ez egitera:

A) Elizetan sartzen etzaie utziko emakume (emazteki) itsuski jantziei, besoak, lepoa eta agirian deramazkitenai.

B) Eliz-zaiak oartu gabez itxura ortan Mai Santura dijoazenai (doazina) ukatu egingo zaie Euskaristi guziz Santua ta gure Jauna.

D) Ezta ere etzaie emango saferarik Elizetan amabi urtetatik berako nexkatoai *gutxienez belaunetaraño estaltzen dien gonaz jantzirik ez padioaz* eta amabi urtetara ezkeroz belaunetatik berago.



Bi aizpa ondó jantziak

2.^a Monjak erakusten duten Ikastetxetan debekatzen dugu beren ikasle nexkatxoai Agiri ontan gaitzesten ditugun jantzibefi ez kristauak erabiltzen uztea.

3.^a Apaiz-aita (Párroco) Ordezko, Elizen Buruak, Praile ta Monjaen Elizetako Nagusi Agurgafiak, Nere Eliz Bañutian nexkatxoai erakusten dien Monjaen Ikastetxetako Ama-Buruak irakufi (leitu) ta irakurtzea agin-

duko dute aiek, beren elizetan eta Monjak nexka geientsuena bilduko dan egun batean.

4.^a Apaiz-aita, Ordeko, Elizen-Buru, Praile ta Monjaen Nagusi agurfiak beren eliz-atarietako *toki agirian* ezafiko dute Agiri onen agintzeko zatiaren 1o, 2n, eta 3n, zenbakiak dakartzen ofi, nere izena eramango duana.

5.^a Nere agindu auket betetzeko agintzen diet Apaiz-aita, Ordeko, Elizen-Buru eta Monjaen Nagusi agurgaríei menpetasun santuaren azpian; eta nere eskupeko ez diran Ordenetako Buruzagiei Elizaren Legediari ta Aita Santuari zor dioten menpetasun santuaren azpian; eta etsirik gaude, gure emakume kristauen bafengo zentzumena ez pa-dago txaro (arunt) galdurik, ez dutela eragozpenik jafiko—ori gañera alpefikakoa litzeke—Nik agindu ditudan erabakietarako.

Iruña'n, 1924'eko Gararilaren 29'an, Pedro ta Pablo Apostolu Santuen jaiean.

MATEO, Iruña'ko Obispoa.

EZTI-TANTOAK ⁽¹⁾

Beste gazte ura befiz, lenengo Jaunartzea egin-arte mutikorik oneneta-koa izan omen zan, eta gero ere amasei bat urte-arte gazte elizkoia eta zintzoa; gofputzez trinkoa ta lefdena, bere efiko mendietako aritzen antzera; biotzez, befiz, maitekoñra ta apala, bere etxe-inguruetan lafean zebiltzan ardi ta arkumeen eran.

Baño gero, bere guraso diru-zaleak aren bialfik etxean etzutela-ta, mutil zintzoa ta azkafa zela-ta, Bilbo'ra biali zuten, mutilaren bizkafetik diru apufen bat geiago jasotzeko asmoz, nunbait. Baña amaikari gertatu oi-zaiena gertatu zitzaien guraso aiei ere, zoritxafez: aberastu ez, ta mutila galdu.

«Nemo repente fit summus» esan oi-zuten Efomatañak, ta egia; ez da inor bat-batean gaiztotzen, ez da bide onean sendotzen ere: gazte ura ere bere efitik kanpoan ez zan bat-batean gaiztotu, baizik poliki. Lendabizi, lagunak beldufez, elizara maiz joateari utzi zion, gero jolas kaltegarrietan zalekeri biziz asi zan, laister elizari osoro utzi zion eta azkenez, atseginkeri loietan leporaño saftu zan. Lenengo ilabeteetan, ilero-ilero bere amari bialtzen zion auzetzen zuan diru guzia. Ama bere afekin zoratuta zegon.

—«¿Il onetan Martintxok—esan oi-zien auzokoei—bost duro biali dizkit: ori da seme zintzoa, ori!»

Laister, mutilaren befirik aspaldian ez zuala-ta kezketan asi zan, eta gero aren aztarnik ere ez zuan; andik ilabete batzuetara ez zekian bizi bazan ere. Alpefikakoak izan ziran ama afeke semearen bila ibili zifuan bideak. Naigabe onek, azkenez, eraman zuan ilobirã ama gaxo ura, efitafen iritiziz.

Bitartean gure mutila jo batera ta jo bestera zebilen, nun gogoa an zankoa, lufera begira, inoiz Zerura begiak jaso gabe. Azkenean, ogei urtetan, pipiak jotako abe ustela bezin ustel, aitatutako Donostiko gaso-etxe artan

(1) Ikusi asiera Ofileko zenbakian.

efukiz jaso bear izan zuten, biotz oneko emakume aberats bateri eskeřak.

Bere zorionerako, egun artan bertan sartu zan gaxotetxe artan beste gazte on uraxe ere. Biok gela batean eta inguruan jafi zituzten. Laister al-kaf ezagutu zuten. Gure Martiń'en bařuan poliki-poliki gaztaroko oroigai zoragafiak piztu ziran eta, eta oroigai auek Jaungoikoarengana eraman zu-ten. Apaiz jaun agufgafi bateri ots-egin zion eta negaf gozoa zeriola, bere bizitza guziko uts-egite ta obenak naigabez eta damuz josirik aitortu zizkiń.

Bere bizitzako azkeneko aste osoa bere ońazeak eta naigabeak Jaunari eskeintzen igaro oi-zuan.

«Ene Jaun maitea—zion gautegun—nere ońazeok gogofak dira, zińez; bańa gogofagoak ere merezi ditut: artu izkidazu, ba, nere obenen (pekatuen) ordaingaritzat.»



Ta beste gazte gaxo ura? Egunetik egunera zoriontsuago bere gaxota-sunarekin. Beti bere ezpainetatik ifipafa gozoa eta itz ařigafiok: «eskeřak Zuri, ene Jaun ona, ainbeste maite izan nařulako: eskeřik asko, Jauna, es-kafik asko.»

Eta itzok izan omen ziran bere azkeneko itzak. Aingerutxoa ilkofa ba' litz, gazte onen antzera ilko litzakela, dirudi. Aragizkoa izan eta aingerua-ren gisa bizi eta il: ořa oř Jaungoikoaren eskua.


Biok egun batean il ziran: biontzat, beraz, gaxotasuna, gaxotasun min-katza, Jaungoiko gure Jaunaren emaitzik bereziene, Bere maitetasunaren ezagungaririk argiena izan zan. Ořa gaxotasuna, naigabea, ońazea eta ga-ńerako zoritxafak gure onerako, gure zoriontasunarako, izan litezken, ala ez: eta ořa aitaturako korapilo ura askatu.

Irakurle, itxi begiak eta ausnartu pitin batean bada ere, eta egiaren gun bizia idoroko dezu. Aguf... ta beste bat arte.

Jauregi'tar Luis, Apaiza



Portziunkulako Barkamena



ORTZIUNKULA, Kristaudi guzian ain ots aun-dikoa, Asisko auzo bateko Eliza da: Prantzisko Doneak asko maite izan zuan; antxe jafi zuan be-re Anaidiko lenengo Alkartegia; antxe iritxi zu-an Jesukristogandik, Andre Mariaren bitartez, Portziunkulako Barkamena, esan al bańo geiago Kristau ta Garbitokiko anima zeruratua; antxe eman zuan bere azkeneko arnasa, oso gozoki,

Kristoganako ta lagun urkoaganako maitasunean urturik eta bere seme maite ta maitetsuz inguraturik; andik egaz egin zuan Zerura, zorionez beterik, be-tiko guzian bere Maitea ikustera.

1.221-ko Ufileko gau eder batean, beste askotan bezela, Prantzisko

Doneak Portziunkula ondoko basoan gizonen betiko osasunerako gogotik otoitz egitean, Aingeru baten itz gozoa aditu zuan, ziona: *Prantzisko, Elizara, Elizara*. Prantziskok orduan Portziunkulako Elizara berealaxe joztean, an ikusgafi afigafi bat ikusi zuan: Jesus eta Maria, Aldare gañean jafita, zorionez beterik, Aingeru edefez inguraturik.

Prantziskok orduan, Aldare aufean auzpeztuta, Jesukristo agurtu zuan; eta Jesukristok berealaxe Prantziskori oso gozoki esan zion: *Prantzisko, badakit, zu ta zure Anaiak alegiñean saiatzen zeratela gizonak zeruratzten. Orain, ba, nai dezuna eskatu, emango zaitzu-ta. Zu lurreko argia izateko ta nere Elizari eusteko autua zera ordea*.

Prantziskok orduan Jesukristori eskatu zion jafen! ondo damutu, oitor-tu, ta Eliza artan sartzen ziranai, beren efu guzien zofen barkamena emateko. Ta gero Andre Mariari eskatu zion jafen! gai artan bere bitartekoa izateko. Andre Mariak berealaxe egin zuan bere bitartekotasuna; ta Jesukristok orduan Prantziskori oso gozoki esan zion: *Prantzisko, asko eskatzen dezu; baña oraindik geiago emango zaitzu. Eskatu dezuna, emana daukazu. Baña zoaz nere Ordezkoagana (Aita Santuagana), nik emandako Barkamen au ontzat emateko eskatzera. Nere Ordezkoa da bakar-bakarik lurrean guzia lotzeko ta askatzeko eskubidea duena-ta*.

Au esandakoan, ikusgafi afigafi ura ezkutatu zan; Jesus eta Maria, bere Aingeruakin batean, Zerura biurtu ziran; Prantzisko oso poztu ta indarturik gelditu zan.

Prantzisko, ufengo goizean goiz, Aita Santuagana joan zan, Jesukristoren agindua egitera. Aita Santuak Prantzisko oso ondo artu zuan; eta Portziunkulako Barkamena, Jesukristok emana, oso gogoz ontzat eman zuan; eta Barkamen au irabazteko garaia izentatu ere egin zuan, au da, Abuztuko lenengo eguneko bezperetatik bigafen gabera artea.

Portziunkulako Barkamena, leku guzietan, oso pozik izan zan artua; befi pozgafi au ordea laster izan zan zabaldua leku guzietara; ta Portziunkula egunean, leku guzietatik, lagun asko joaten ziran Portziunkulara, Barkamen aundi au irabaztera. **Bereun mila** (200.000) inguru joaten omen ziran Senatar Bernardino Donearen garaian.

Portziunkulako Barkamena, geroago, Aita Santuaren aginduz, Prantziskotar Eliza guzietara izan zan zabaldua. Ta oraiñago befiz, Aita Santuaren aginduz, Pafoki guzietara, ta beste Eliza ta Otoiztegi askotara izan da zabaldua. Gañera, orain, Aita Santuaren aginduz, Abuztuko lenengo eguerditik bigafen gauerdia arte irabazten da. Ta, ala bear bada, Portziunkula ondoko igandera aldatu leike. Baña igande ontara aldatu ezkerro, Portziunkula egunean ez da irabazten. Egun bietatik batean bakarik irabazi leike ordea.

Portziunkulako Barkamena irabazita, efu befirik egin gabe, iltzen dana, zuzen-zuzen joango da Zerura, Garbitokian sartu gabe. Ta Barkamen au Garbitokiko anima batentzat irabazten bada, anima ori berealaxe joango da Zerura, Jaungoikoaren naia ala bada.

Portziunkulako Barkamena Eliz-ikuste guzietan irabazi leike. Lenengoa, bakoitzak beretzat irabazi bear du; ta beste bakoitza befiz Garbitokiko anima batentzat irabazi leike.

Portziunkulako Barkamena irabazteko egitekoak.

Aitortzea, Jaunartzea, Elizikustea, ta Aozko Otoitza. Aitortzea egin leike Barkamen aŕeko zortzi egunen baŕuan; *Jaunartzea* befiz Barkamen aŕeko egunean; ta naiz bata naiz ta bestea Barkamen ondoko zortzi



Porziunkula

egunen baŕuan. (Lege Beŕia, 931-gaŕen Agindua).

Elizikusteak egiazko sartu-irtenak izan bear dute.

Aozko Otoitza, naikoa da, zazpi *Agur Mari*, Eŕosarioko amaŕeko bat, bost *Aitagure*, edo beste olako bat. Ez dago ordea otoitz izentaturik.

Saiatu gaitezen, ba, Portziunkulako Barkamena irabazten, naiz guretzat, naiz Garbitokiko animentzat. Guretzat, gure efu guzien zofen barkamenerako; Garbitokiko animentzat, anima oiek Zerura bialtzeko.

Aita Eskoriatza



JESUS MAITEARI



Donostia'r J. A. A'k bildua

(Almandoz'tar Norb. ereskidetua)

Andante

Kris - tau gaz - te mai-

te - a zu - re - tzat naiz min - tzo A - di za - zu go -

go - tik zen - bait so - las go - zo; Ze - ru - ra - ko bi -

de - a di - zut i - ra - kas - ten; Ja - fi zai - te go - go -


tik bi - de o - ri i - kas - ten.

Goizdanik bear dezu maitatu Jainkoa
 Iritxi nai badezu betiko gozoa;
 Gazte gaiztoak dira geyenak ondatzen,
 Gazte prestuak beriz zeruaz gozatzen.

Denboren egilea bide da Jainkoa,
 Adin guzien ere jabe egiazkoa;
 Ala gera arenak gaztetasunean,
 Ola ezindu eta zartu geranean.

Ortik ikusten degu gure eginbidea,
 Iduki bear degun bizitze-moldea;
 Jainkoa bear degu guziak maitatu,
 Aren lege santua beti begiratu.

Zuk, o Jesus maitea, gure Jabe ona,
 Jende gazte prestuak ain maite tuzuna,
 Egiazko prestuak beti zatzu lagun
 Beren asmo onetatik ezditezen urun.



EUKARISTIAZ

¿Zer ari da Jesus Eukaristian?



UTIKO batek, Sagrarioaren afean belauni-ko zegoela, onela galdetzen zuan bere baitan.

«¿Zer ari da Jesus Eukaristian...? Bizirik ote dago ala ilik..? Lanik egiten ote du ala lotan bezelaxe datza beti...?»

Galdera oiek egiten zizkiola bere buruari, begi biak sagrarioaruntz zuzentzen zituan eta gogoan jakin-nai bizia sortzen zitzaion.

Mutiko maitea, nik erantzungo dizut orain-txe; irakuf zazu euskeraz idatzi (eskribitu) dedan ofialde auxa ta ikusiko dezu.

Bizirik dago.

Bai, bizi-bizirik. Eztago'ez ilik. Belengo' estalpean jayo zan uraxe ber-bera; ogei ta amaf urtetaraño Andre Mariaren eta Jose Deunaren menpean iraun zuen ber-bera; azkeneko iru urteak Jaungoikoaren legea erakutsiz eta Elizaren afoinak ipiñiz igaro zituan ber-bera; gero gurutze batetik zintzilika gugaitik il zan uraxe ber-bera da Sagrarioan dagoan Jesus. Eta eztago ilik; bizi-bizirik dago, emen lufean Ama Birjiña ta Jose Deunakin ibili zanean bezelaxe.

Ofegaitik edef zait neri erkatzea (comparatzea) Sagrarioa Belen'go etxolarekin, Nazaret'ko lan-etxeakin, apaltokiarekin, (Zenakuloakin), Getsemaniko baratzarekin, iltzaturik egon zan gurutzearekin; baña ez ordea lufperaturik egon zan ilobiarekin (sepulturarekin). ¿Zergatik? Toki aietan bizi-rik egon zelako Jesus; azkeneko onetan befiz ilik.

¿Lanean ala lotan...?

Bizirik dagoelarik, ¿zer ari da? ¿Bein lanean ta bein lotan...? Ez orixe. Beti ta beti lanean ordea. Lendabiziko lana gu maite izatea da. ¿Luñera baiño len maite izan ginduan? ¿Luñera ezkeroz gurutzean zintzilika zegoala ere bai? Neufi ber-berean maite gaitu orain Sagrariotik eta maite izango ere beti. Onegaitik dio txit egoki Ligorio'tar Alfonso M^a Deunak: «Ondo dakit, Jauna, aldare ortatik maite nauzula, gurutzean josirik iltzen ziñanaen, maite ninduzun maitasun ber-beraz.» (1)

Orixen da Jesus'en lendabiziko lana, gu maite izatea. Baina maitasuna ez da bein ere geldirik ta alpefik egoten. ¿Ez ote dezute ikusi su-gafa eragozpen batzuen azpian dagoela, nola zuloetatik gañera ateratzen dan..? Era berean maitasunak, biotzean softu ta indafa aftuz geroz, bafenetik lekora (kanpora) atera nai izaten du egiteetan agertzeko. Maitasuna beti oi da eragileen, beti eginkizunen itufia.

Oregatik Jesus'en Biotzaren nagusi ta jabe gurekiko maitasuna egin dalarik, ez daiteke Jesus Eukaristian iñoiz ere lotan edo alpefik egon. Bein Aita Betikoari guretzat efukia ta ogenen (pekatuen) barkapena eskatzen dio; bein Sagrario bafenetik bere ondora deitzen gaitu, gu poztutzeko, guri nekeak arintzeko, gure etsaien kaltez indaftzeko; bein gure gañera maizegi etortzen zaizkigun afiskuetatik begiratzen gaitu. Ofela ari da Jesus lanean beti, bein ere bakartzen eztuela. Zait egoki esan dezake orain ere Fariseoai esan ziena: «Nere Aita beti ari da lanean ta Ni ere berdin.» (2)

Maitasunari maitasunez erantzun bear zaio, dio esaerak. Biotz mugikafa ta maitalaria oi dute gizon geienak. Norbaitek maite dituela oafu ezkeroz, bereala asten dira maitasunez erantzuten eta maitasunaren indafak erabiltzen ditu, aize-boladak eleiz-dofetako aize-ofatz (beletak) bezela.

Gizon batek edo batek ordea biotz eskeftsua ta maitalaria ezpadu, guztiok esan oi dugu: «Gizon ofek ezdu aragizko biotza, afiskoa baizik.»

Jesus'ek aña eskuerakutsi, mesede ta ongina iñork ere ez digu egin ta egin al izan ere ezin. ¿Guk bada nola erantzungo ote diogu Jesus'i? ¿Noiz oroituko gera Jesus'ez? ¿Zer egiten ote degu Jesusgaitik? Lanean ari zera ala lotan beti? Gure gogoari jos dezaizun *Maitasunari (Jesus'i) maitasunez erantzun bear zaiolako esaera.*


Yur'e'tar Julian A. O. M. Cap.

(1) Bisitak; 25'na. (2) Joan. V-15.





Emakumea ta Irakurgaia



20—Bizi mardula (1)



NDREEN mota askotako lanean gizonak oso atzean uzterañoکو siñismen bero, on egiteko ausardi ta ondore onen sustraia diran doaiak daude. Eztira afitzekoak oien lanen ondore onak siñismenez betetako bere itz egite zabal-argi-bizi-beroa entzun ondoan.

«Emakume Prantzi'tafen Alkaftasun Abertzalea, ba zion 1912'ko Batzafean Dubuquoy andereñoak (señoritak), erlijio katolikoari laguntzeko dago; bere gogo bizi-bizia da bera gauza guzien gañetik gofoto ta jazarpen edo persekuzioen gañetik ta gofoto au erein ta jazarpen auek piztutzen dituzten izpañ-ingi edo paperen gañetik».

Ta, andre lan-zaleak diran ezkerok, bete-betea langileak izan nai dute ta kristau agiriak, zalantza-gabeak ta erlijioaren alde amor ematen ez dutenak. Ofegatik andre Prantzitafen Alkartasuneko andereño edo señorita batetik bero-bero zion:» Ez gera pozik gelditzen alik eta albiñtari (periodiko) katolikoa besteai aferazi arte. Beste batzuk paper txafetik katolikora beingoan igarotzea zañ dalako ez katolikoan adiskide, ez etsai dan papera sartzeko esaten digute. Guk, ordea, aitortu dezakegu olakoa baño efazago katolikoa aferazten dala. ¡Jesukristo ta gure tartean eztu bitarterik izan bea!»

¡Izkera afigaia! ¿Nola ez plametitu ta afitu ta zur egiñik geratu? Aulak deitzen ditugun andreak indaftsuaك deitzen ditugun gizonai erakatsi egiten die sañitan (maiz) ta giza-lanai zeruko indařak ezařtzen dizkie.

Olakoen auean burustu egin beař.

20—¡O andreak, ekin lanari!

O andre euskaldunak (egileak *italiarak* dio), egin alegiñak gure artean ere irakurgai onak, laguntzale ta zabaltzale beroak topatu ditzaten. Mundua loian itotzen ari da, gizartea lafi-lafi dago, eliza atsekabez dago. Ez diteke gauza ajolakabea izan ta berezirik egon. Sartu zuek biotz aundiz bufukan ta lan santu onen laguntzale bero ta nekatu eziñak izan zaitezte.

Gogoan ondo ezaři-ta euki, gizarte ta Erlijioaren aldeko lan katolikoe-tan irakurgai onen aldekoa da nagusiena.

(1) Emendik aũera ipiñiko deguna lan onen bigařen argitaldi edo ediziotik ařtua dago geiena. Lengoan bukatu zan lan onen zati bat «Tolosa'ko Zabaltzea» onen zatia besterik etzan.

«Zuen maitetasuna, zuen ařeta, zuen lana, batez ere onentzat izan beař du. Zalantzik gabe diot—zìon Gotzai edo Obispo argi Isoard jaunak—irakurřai onen lana besteak bařio lenago jayo-azi ta lagundu egin beař diogula. Ta egiazki Kristau-Eskolak, Siřismenaren Zabaltzea, Pedro santuaren Diru ta beste lanak ez ditezke mardul bizi, oyek ezagutuazi ta maita-azitzen dituzten ta asko zabaltzen diran irakurgairik ezpadaude».

Egi au ez ezagutzea itsu egotea da; ta egi onen arauera ez lanik egitea, eř kristau argiduna izatea da.


Jainkoaz, erlijioaz, animetaz eta gizarteaz ajola ba'zaigu onen eginbeař aundi ta argiaz ez gaitetzeke ajolagabe egon.

1876'ean Gambetta'k-guda - oju au «Apaizak, ořa gure etsaiak» egin zuanean, Paul'go Bizente santuaren Konferentzien buru zan Adolfo Baudon jaun begi zofotzak auxe esan zuen: «Albistari edo periodikorik ezpadegu, eřiaren iritzia ez da gure aldekoa izango eta ori gabe eliza ta ikastetxeak egingo ditugu: gure elizak itxiko dituzte ta ikastetxeak kenduko dituzte.

Gauza guzietaz bařio lenago albistarietaz ol-doztu (pentsatu) beař degu».

Andik ogei ta amañ urte bařio len itz aiek egiztatu ziran. Ořegatik Sou-lange Bodin apaizak lan bikain oni bere indar oberenak eskeřiaz, animak esnatzeko al zituan bideak asmatu zituan ta eskutitz edo karta estalkietan itz indařtsu aiek ezařiaz (inprimituazi) zituan: *Alperik da izketatzea, predikatzea; alperik, albistari edo periodiko txarřak irakurtzen dituanari dotriņa erakustea.*

Ta egi da. Zer indař izan dezake zortzian bein entzutun dan Eřetore jaunaren itzak, berak erakusten duanaren kaltetan paper gaiztoak miřa erata-
tara egunero itz egiten duanean?



GARTZAIN

¿Ta ikusi al dezute egunero paper gaiztoak irakurtzen dituzten oiek igandero Mezara jua ta Efetore jaunaren itzaldia entzuten?

Edo, bestera, ez al dezute oafu erlijioaren kontrako paperen irakurle iraunkofak, azkenean Meza entzuteari, pekatuak aitortzeari ta bere buruak katolikoak deitzeari utzi egiten dutela?

«Gizonaren izaerari bakañik begiratu-ta, zion Pie kardenal jaunak, irakurgai txafai gogof egin dizayoteken indañik eztago, Luñeko eñirik elizkoie-na bera, paper txafak irakurñiaz, ogei ta amaf urte baño len siñismen-gabe ta naste-zale-efia izango litzeke».

Cultrera-Arbelaitz

AÑATS-OTOITZA

Kristo, egun argitsua,
Gaua ondatzen dezuna,
Argiaren Iragarle,
Goiko Aitaren dirdira;

—
Gure etsai gaiztoagandik
Zaindu gaitzatzu gau ontan,
Satan'en beldurik gabe
Lo-egin dezagun Zugan.

—
Naiz begiak loak-artu
Bego biotza esnarik;
Jauna, eskua iguzu
Ez dagigun deus okeñik.

—
Deabrua beti dabil
Gure arimen ondoan;

Zain gaitzatzu, Jesus Jauna,
Bere mendera ez gaitzan.

—
Zeroñen gauzak gera gu,
Zuk odolaz erosiak;
Zureak izan nai degu,
Zu zera gure Jabea.

—
Betoñ zure Aingerua
Zure gauzok gordetzera;
Betoñ gure Zaintzalea
Gu Satan'gandik zaintzera.

—
Orain bagoaz lotara,
Jauna, zure izenean;
Jainko Irubata, zuri
Ospea menden-mendetan.

URTSUYA



EDERKI ERANTZUNA!



zer erantzupen edera eman zion atxo beltz batek misiolariari!

Afrika'n, Suiza'ko Kaputxinoen misioetan gertatua da.

Atxo xař-xař batek batayatu nai zuen. Katekistak (dotriña-irakasleak) ordea etzion utzi nai dotriña ongi aski ikasi etzuelako.

Baña atxoak ezpaitzion pakerik uzten, joan zitzaion bein misiolariari atxoa besotik zeramala ta esan zion:

—Aita! ona, au batayo santua artu nayez dago; baña nere ustez eztaiki naikoa dotriña, naiz berak bayetz uste izan. Ikusi bada zerořek, galdegiozu ta ea naikoa badakien.

—Ikusiko degu, esan zuen misiolariak ta asi zitzaion atxoari galdeak egiten.

—Ea, batayoa zer da?

—Batayoa... ura da.

—Baña ur ořek zer editen du?

—Gure biotzak garbitzen ditu ta gero Jainkoak bere ume deitzen gaitu.

—Eztago gaizki; ta Konfesioa zer da?

—Konfesioa... gure pekatuak gugandik aldegiten dutela.

—Komunioa zer da?

—Komunioa da...guk Jainkoa jaten degula.

—Baña, andrea, eztezu gugiz ongi erantzun. Dakustanez zuk eztezu gure erlijioa ongi aski ezagutzen; beraz ezin zaitzakegu oraindik batayatu.

Orduan atxo gaixoak besoak zabalik ta misiolariaren aurrean belaunika-turik esan zion:

—Aita, nik dotriña ba ote dakidan ala ez, or ikus zerořek.

Baňan auxe badakit nik ongi, gure Jainko Jauna gauza guziak baňo maiteago dedala ta batayoa artzeko gogo aundia dedala. Begira, ni zařa naiz, burua auldu zait; zuk irakasten dizkizugun gauzak ez ditezke nere buruan jende gazten buruan bezin eřaz sartu. Baña esazu, Aita: *Emen zure aurrean ni nagon lekuan zerořen ama balego, zer egingo zenuke?*...—

Misiolariak etzion deus erantzun. Azken itz oyek ukitu ta samurtu zioten biotza. Artu zuen bereala txartel bat ta idatzi (eskribitu) zuen artan: «Batayatzeko prestaturik dago.»





BRASIL'DIK



ORAILAREN 27'an asi ta Mayatzaren 5 arte jai eder ta zoragafiak egin dira Rio de Janeiro'n, berta-ko Arzobispoak, Arcoverde Kardenalak bere lenengo mezaren 50'g. urtea bete dualako. Brasil guztiko Gotzai ta apaizak, Gobernua ta Presidentea bera, goikoak ta bekoak, guztiak batu dira Kardenal txit agurgafi oni egin zaizkion jaietan. Kato-likoak poztutzekoa da Brasil'en Elizari zaion begi-rune ta maitasuna ikustea.

62 ikastetxe befi.

Jaiak gefutzeko egin zan batzar edo juntak gauza edefa eskeñi nai izan zion Kardenalari egun zoragafi ortan, opari edefa, baño iraunkofa. Kardenalak bete ditun urteak ainbat ikastetxe befi egitea erabaki zuen. Asmo eder au danak ontzat eman zuten ta baita ere lagundu 50 ikastetxeak lenbailen jasotzen. Asmo onek argi erakutsi du Brasil'en Kardenalari dioten maitasuna; ez 50 bakafik, 62 ikastetxe befi jasoko dira brasildafak eman duten diruakin. Alderdi guztietako iz-pafingiak oso ondo begiratu ta asko goratu dute Kardenalari egin zaion eskein-tza eder au. Ikastetxe befi oyek «Arcoverde Kardenal Ikastetxeak» deituko ditu-te. Au da Brasil'i on asko ekafi ta loreak baño geiago iraungo duen eskeintza.

Jaungoikoa nai degu.

Txit ikusgafia ta ifioiz ikusi ez dan bezela zegoen Mayatzaren 3'an Republi-ca'ko enparantza edo plaza. Bere erdian lorez apaindutako aldare aundia agiri zan ta aldarean Jesus'en Biotzaren irudi edefa. Aldare alde bateko soilaru edo tribunan Aita Santuaren Ordezkoa ogeien bat Gotzai ta uriko agintariak lagun zituela. Beste soilaruan gudari edo soldadu gaixo ta eriak. Aldare aurfan 10.000 gudari, lufeko ta itxasokoak, beren jantzi edefenakin ta beren bandakin, Enpa-rantza inguru guztian jende ikaragafia, danak ixilik, afiturik, begiak ikusten zu-tena sinistu eziñik. Jendearen txaloak ixildu ziranean ta Arcoverde Kardenala le-ku berexian jafi zanean, asi zan meza. Gauza edefa zan benetan 1.850 gudari 17 apaizen eskuetatik Jauna artzen ikustea. Gudari gaxo edo eriak batez ere sa-murtu zituzten biotz asko, geldi-geldi ta monjak lagundurik aldarera urbildu zi-ranean. Azkenean meza-emaleak itzegin zien beren egipen edefa goratzeko, esa-naz nola arkitzen dan Elizan abefia gordetzeko laguntzik bikañena. «Jainkoa nai degu» kantatu zan jai eder au bukatzeko. Ufengo goizean ta enparantza berean «Jesus, Maria ta Jose'ren Liga»ko 5.000 gizon urbildu ziran Jauna artzera.